



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

EXP: 2023WDI10001

IBARRAKO UDALAREN ETA MERKATARI ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ibarran, 2023ko ekainaren 9an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Igor Zapirain Lizarribar, Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarra Udaleko idazkariak lagunduta, Eider Esnaola Carrera.

Eta bestetik, MIREN ITXASO CALVIÑO MENDIGAIN andrea, Merkatarari Elkartearen lehendakaria. Elkartearen egoitza soziala: Euskal Herria 4 kalean duena, IFK: G-20681078.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarra Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Merkatarari Elkartearen izenean eta ordezkartzan, lehendakari gisa, 1999ko urriaren 14an, 13:30ean, 20/442 erregistro zenbakiarekin, notarioaren aurrean emandako ahalmenaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- Merkatarari Elkarteak, Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez —sarrera erregistroko 2023- 00000000964 zenbakiarekin- 2023 ekitaldian ekintzak gauzatzeko dirulaguntza eskaera aurkeztu du, Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz. Memoria honek 18.850,50 euroko guztizko aurrekontua du, dirulaguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

1. SENTSIBILIZATU FIDELIZATU. Urte osoko kanpaina, herriko beste eragileekin elkarlanean ekintza desberdinak antolatuz herriko dendatan erostek duen garrantzia azpimarratzeko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. BONO KANPAINAK:

KANPAINA I: Uda aurretik. Bertakoek bertan erosi dezaten erakartzeko bonoak aterako dituzte: bezeroak 20€ ordainduz 30€ izango ditu gastatzeko kanpainara atxikitzen diren saltokietan.

KANPAINA II: Uda ondoren. I. kanpainaren helburu berarekin antolatuko da II. kanpaina hau.

3. GABONAK. Merkatariak urtean izaten duten salmentarik handiena suposatzen du gabonetan. Hortaz, kanpaina berezia egitea aurreikusten da, baina zehazteke dago.

Halaber, kaleak apaintzeko helburuarekin eguberritako argiak alokatuko dira. Guztizko aurrekontuaren erdia merkatarik elkartek bere gain hartuko du.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan diru-laguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritik, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xedearekin eta helburuarekin.

V.- Ibarra Udalaren 2023ko udal aurrekontuan, 1 08.431.00.481.01 partida agertzen dela, 10.000 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **herri-osasungarritasunaren babesa**. Eskumen hau Udalaren berezko eskumenen artean dago eta merkatarik elkartek Ibarra herrian bertako merkataritza sustatzea du bere helburu nagusien artean.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

VIII.- Dirulaguntza izendun hau, Ibarra Udalak 2020ko otsailaren 18an onartutako Ibarra Udaleko Dirulaguntza Plan Estrategikoan (2020-2023) jasota dago (GAO, 38.zk), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozedurarik egingo dirulaguntza emateko.

IX.- 298/2019 Alkate Dekretuari jarraiki, dirulaguntza hau kudeatzeko organo eskuduna Alkatea izango da.

X.- Aipatu dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitara emango da.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udalaren eta Merkataritza Elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerraren barruan, honako arrazoiengatik:

- ✓ Herrian dagoen merkataritza elkarte bakarra delako.
- ✓ Herri bizia mantentzeko ezinbestekoa delako, herritarrek herrian bertan erosteko aukera ematen baitute, beste herriren batera lekualdatu gabe.
- ✓ Bertako produktuak bultzatzeko herriko eragile aktiboa delako, gertutasuna bermatuz.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduerak sartzen dira:

1. SENTSIBILIZATU FIDELIZATU. Urte osoko kanpaina, herriko beste eragileekin elkarlanean ekintza desberdinak antolatuz herriko dendatan erosteak duen garrantzia azpimarratzeko.

2. BONO KANPAINAK:

KANPAINA I: Uda aurretik. Bertakoek bertan erosi dezaten erakartzeko bonoak aterako dituzte: bezeroak 20€ ordainduz 30€ izango ditu gastatzeko kanpainara atxikitzen diren saltokietan.

KANPAINA II: Uda ondoren. I. kanpainaren helburu berarekin antolatuko da II. kanpaina hau.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3. GABONAK. Merkatariak urtean izaten duten salmentarik handiena suposatzen du gabonetan. Hortaz, kanpaina berezia egitea aurreikusten da, baina zehazteke dago.

Halaber, kaleak apaintzeko helburuarekin eguberritako argiak alokatuko dira. Guztizko aurrekontuaren erdia merkatari elkarteak bere gain hartuko du.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarrako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2023ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **10.000 eurokoak** izango dira, 1 08.431.00.481.01 2023 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarrako Udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerranda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

- b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hala ere, baldin eta Ibarako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio ingurumen, merkataritza eta nekazaritza departamentuari, Ibarako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera III: kapitulua.

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarako Udalaren Ordenantza Orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkaturako balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkaturan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarako Udalaren IIII kapituluan dirulaguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

- a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala betea.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean eta Ogasunarekiko zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa dirulaguntzaren % 70a izango da, eta gainontzeko % 30a, egindako gastua justifikatzen duen kontua Alkate Dekretu bidez onartutakoan. Kitapena 2023ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarako Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari (BDNS) jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarra Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarra Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena.- Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarra Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 48. eta 49. Artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamalagarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarra Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hamazazpigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarra Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemetzortzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitezkeen guztian, beteko dutela.

Hemeretzigarrena.- Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarra Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen hau izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut.

ALKATEA

Igor Zapirain Lizarribar

Merkatari Elkarteko Lehendakaria

Miren Itxaso Calviño Mendigain



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA JUSTIFIKAZIO ORRIA

1. ERAKUNDEAREN DATUAK

Erakunde eskatzailea:		IFK	
Helbidea			
Herria		PK	
Tel.		E-posta:	

Arduradunaren izen-deiturak			
Nortasun agiria			
Helbidea			
Herria		PK	
Tel.		E-posta:	

2. PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Proiektuaren izena (Proiektuaren azalpen laburra)

Proiektu mota

Proiektuaren iraupena			
Hasiera data:		Amaiera data:	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Proiektuaren gai nagusiak (Markatu lau lauki gehienez.)	
Herri nortasuna	Kulturartekotasuna
Ohiturak	Turismo kulturala
Ondarea	Gastronomia
Artea eta kultura	Musika
Historia	Dantza
Animazio soziokulturala	Arte eszenikoak
Aisialdi hezitzailea	Zinema
Besterik (zehaztu):	

Proiektuaren helburu nagusia

--

Jarduera nagusiak

Jardueren hartzaileak

Zehaztu zeintzuk izan diren (sexua, adin tarteak, etab.)

--

Genero ikuspegia. Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak

Zehaztu proiektua garatzerakoan nola hartu diren aintzat emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak.

--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA: GASTUAK ETA SARRERAK

Azalpena	Behin-betiko kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru sarrerak (publizitatea, baliabide propioak...)	€
Erakunde pribatuen diru laguntzak:	€
Herri erakundeen diru laguntzak:	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza	€
Beste herri erakundeen laguntza	€
Ibarrako Udala	€
Beste batzu:	€
GUZTIRA SARRERAK	€

GASTUAK	
Pertsonal kontratuak	€
Ordainagiriak (zerbitzuak ematea)	€
Fakturak	€
Tiketak (20 eurotik beherakoak)	€
GUZTIRA GASTUAK	€

4. GASTUEN JUSTIFIKAZIOA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Justifikatutako gastuak zehaztuta

MOTA	ZK.	DATA	IGORLEA	JASOTZAILEA	KONTZEPTUA	BEZ-a	IRPF %	KOPURUA
1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								
10								
11								
12								
13								
14								
15								
16								
17								
18								
GUZTIRA								

AURKEZTU BEHARREKO JUSTIFIKATUTAKO GASTUEN ZEHAZTASUNEI BURUZKO ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Gastua zurrizkeko erabiliko den agiria: Nomina, Ordainagiria (recibo), Faktura edo tiketa (20 euro bitarte)
2. Zerbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea: Faktura eta Tiketetan burutzen duena eta nomina eta ordainagiritan egiten duen elkarte.
5. Hartzaillea: Elkartea faktura eta tiketetan eta nomina eta ordainagiritan lana egin duena.
6. Kontzeptua: lana edo gastuaren objektua
7. Bez-a: Faktura eta Tike ten kasuan.
8. IRPFa: Nomina eta ordainagiri kasuan.
9. Kopurua: Elkar teak ordaindu behar izan duena.
7. Guztira: Kontzeptu guztien batuketa

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

Adierazten dut:

Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolana hi ere, prest nagoela Ibar rako Udalaren esku jartzeko jasotako diru-laguntza behar bezala erabili dela konprobatzeko beharrezkoak direnak.

Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarra Udalak baimentzen du formulario honen bidez jasotako datuak tratatzeko dirulaguntza eskaera izapidetzeko helburuarekin

(x arekin markatu baimentzea)

Izena Abizenak.....

Lekua eta data:n, 2023korenan

LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, Formulario honetan jasotako datu guztiak Ibarra udalak jaso eta tratatuko ditu zure **eskaera izapidetzeko helburuarekin**.

Zuk borondatez aurkezturiko eskaera honi Udalak erantzunio dio udal tramiteak zuri errazteko helburuarekin, eta zuk baimen hori **edozein unetan ezeztatu dezakezu**.

Beraz, zuk emandako baimena udalak edukiko du zuk ezeztatu arte edo sortu zeneko helbururako beharrezko izatea utzi arte.

Datuak tratatzeko, Ibarra Udalak ziurtatzen du egoki diren segurtasun neurri guztiak hartu dituela eta langileei formakuntza eman diela horien pribatizazioa ziurtatzeko, ez galtzeko, gaizki ez erabiltzeko, ez aldatzeko baimenik gabe ez sartzeko edota ez galtzeko, Izaera pertsonaleko Datuen Babeserako araudia betez.

Interesdunak edozein unetan du eskubidea bere datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko, aurkaratzeko, mugatzeko eta eramateko. Horretarako eskabidea aurkeztu behar dio Ibarra udaleko Datuen babeserako ordezkariari San Bartolomé Plaza 2, 20400 IBARRA, edo emaila bidal dezake dbo@ibarra.eus, helbidera, bi kasuetan hau adieraziz: "Gaia: DBLO eskubideak" eta nortasuna egiaztatzeko agiri baten kopia erantsita, araudiak dioena betez.

Bere eskubideak ez direla behar bezala kontuan izan uste badu, arlo horretan eskumena duen agintaritzara jo dezake (Datuen Babeserako Agentzia www.agpd.es)



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023WDI10001-Hitzarmena 2023/Convenio 2023 (IBARRAKO MERKATARIEN